



Zegama, 2021eko irailak 29

Kaixo lagun:

Ikasturte berria hasi berri dugu eta gutun honen bitartez, Zegamako Udaleko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Sailak herriko gaztelekua ezagutzera eta bertan parte hartzera gonbidatzen zaitu.

Zegamako Bele Gazte Gaztelekuak 12 eta 18 urte bitarteko gazteei aukera paregabea eskaintzen dizue zuen aisialdiaz gozatzeko, lagunekin egoteko eta euskaraz, modu aktiboan parte hartzeko.

Gaztelekua zuen beharrei egokitutako gune bat da, aisialdiaren bitartez eta hezitzaileen bide-laguntzarekin, gozatzeko eta garatzeko lekua. Bizi dugun egoeran, inoiz baino garrantzitsuagoa eta beharrezkoagoa dugu gaztelekua.

Bele Gazte Gaztelekuan zuek zarete protagonista, nerabeak. Ekintzen programa guztion proposamenekin eratzen da eta zure iritzia funtsezkoa da zure gustuko ekintzekin gozatzeko.

Denok dakigun moduan, "normaltasuna" ez da iritsi oraindik baina gaztelekuko atea irekitzeko irrikitan gaude eta ekintzak aurrera eramateko gogoiz. **URRIAK 9an emango diogu hasiera ikasturte berriari! WHATSAPpeZ bidaliko dizuegu informazio dena.**



Honela, **DERRIGORREZKOA IZANGO DA AURREZ IZENA EMATEA** ikasturte honetan gaztelekura etortzeko eta bertan antolatuko diren ekintzetan parte hartzeko. Izen emateko esteka whatsapp bidez bidaliko dizuegu. Bide hau erabiliko dugu baita ere, aurtengo protokolo eta irizpideak jakinarazteko. Adi mezuei!!!

Izena emateaz gain, gurasoek jasoko duten baimen orri bat sinatuta ekarri beharko duzue, hau gabe ezin izango bait da gaztelekuan parte hartu.

Informazio gehiago eta harremanetarako: 690 26 48 43 telefonoan [/liburutegia@zegama.eus](mailto:liburutegia@zegama.eus) E-postan.

Ongi etorri berriro ere Bele Gazte Gaztelekura!

Izpta.: Izaskun Igoa Arizkorreta

Zegamako Udaleko Gazteria Departamentuko Zinegotzia



ZEGAMAKO
UDALA